



**3/2020 EBAZPENA, otsailaren 18koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako Administraziooko Arrantza Ikuskatzaileen lan-poltsa handitzeko deialditik datozen langileak integratzeari buruzkoa.**

---

Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiak (EHAA, 2006ko ekainaren 13a) EAEko Administrazio Orokorrean eta bere Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz aplikatu beharreko arauak zehazten ditu, eta 4. eta 22. artikuluetan ezartzen du Administrazio horren lan-poltsak zein kasutan eratu eta handitu behar diren.

Administrazio honek beharrezkotzat jo zuen goiburuan aipatutako lan-poltsa handitzea, IVAPek egindako deialdi zehatzen bitartez, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiaren 22.1 a) artikulua arabera. Hala, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko urriaren 18ko Ebazpenaren bidez, Arrantza Ikuskatzaileen lan-poltsa handiagotzeko hautaketa-prozesuaren deialdia egin zen.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2020ko otsailaren 11ko Ebazpenen bidez lan-poltsa handiagotzeko hautaketa-prozesua gainditu dituztenen behin betiko zerrenda argitaratu, eta prozesua amaitu ondoren, langile horiek Arrantza Ikuskatzaileen lan-poltsan integratuko dira, deialdian bertan jasota dauden baldintzen arabera. Beraz, langile horiek indarrean dauden lan-poltsako azken langilearen ostean sartuko dira, hautaketa-prozesuetatik atera den hurrenkeran bertan, eta euren puntuazioa zero izanik.

Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabaki horretan xedatuta dagoenaren arabera, Ebazpen hau eta lan-poltsa eguneratuaren zerrenda argitaratuko dira, Administrazioak bere informazioa hedatzeko erabili ohi dituen bitarteko telematikoetan. Hala, lan-poltsari buruzko informazio hori eskuragarri egongo da, interesdunek jakin dezaten.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 2017ko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 16. artikulua emandako eskumenaren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz 2006ko maiatzaren 30ean hartutako erabakiaren 4. artikulua arabera, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

1.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2020ko otsailaren 11ko Ebazpenean zerrendatutako langileak integratzea zerrendatutako langileak integratzea gainditu dituzten handitze-prozesuei dagozkien lan-poltsan, honako irizpide hauen arabera:


a) Langile horiek indarrean dagoen lan-poltsako azken langilearen ostean sartuko dira, hautaketa-prozesuetatik atera den hurrenkeran, Ebazpenean jasota dagoenez, eta euren puntuazioa zero izanik.

b) Integratutako langileei gertutasun osoa onartuko zaie mota guztietako eskaintzetarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremu osorako. Hortaz, edozein iraupenetako eta Edozein Lurralde Historikotako eskaintzak jasoko dituzte. Bi gertutasun-mota horiek interesdunek aldatu ahalko dituzte, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren 6. eta 7. artikuluen arabera.

2.- Handitzeko prozesuari dagokion lan-poltsaren zerrenda berria argitaratzea [www.euskadi.eus/bolsastrabajo](http://www.euskadi.eus/bolsastrabajo) helbidean. Zerrenda hori ondorioak izango ditu argitaratzen den egunetik aurrera.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari hilabeteko epean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren web orriko [www.euskadi.eus/bolsastrabajo](http://www.euskadi.eus/bolsastrabajo) helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 18a.

  
**FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA**  
**ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA**  
GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA  
Funtzio Publikoko Sailburuordea  
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGUBERNO  
Viceconsejero de Función Pública